

Gipuzkoa eta bertako zenbait herriren lehen berriak

Zenbait katalogaziotan, oraindik orain ere, historian Gipuzkoa izenaren lehen lekukotzat 1025. urtea ematen da. Baina gai hortaz ikus 1987ko *EGAN* aldizkariaren 1-2 alean laburki azaldu nituen lehen berriak, zeren 110. orrialdean nioen Nafarroako errege Santxo Handiaren denboran (Santxo edo Antso III.a), Iruñeko Apezpikutegia berritze agirietan agertzen zela *Ypuçcoa*, 1007. urtean. Eta XII. mende hortan, 1007tik 1091. urtera arte, gutienez zortzi aldiz agertzen zela agiri zaharretan Gipuzkoaren aipamena, lan txo hortan agertzen nituen lekukoetan oinarriturik.

Gipuzkoa, aurretik G duela, gutxienez hiru edo lau mende beranduago dator. Zeren oroit muga inguruko zuen Astigarribiako San Andres alizaren aipamenetan, 1080tik 1108.era bitartean, lau aipamenetan *Ipuzcua* eta *Ipuzcuam* datozela eta Santillanako Markesak XV. mende hasieran *Serranilla VIII.* poesiaren lehen bertsoan *Lepuzcoa* zekarrela.

Baina aurretik *Vardulia* zenaren lekukotasunak ere baditugu. Horregatik lehenago hemen zer zen jakiteko on da Antzinako agirietara jotzea. Adibidez, Estrabon greziarrak bere geografiaren hirugarren liburuko 3. kapituluan aipatzen zuen *bardyétai*, eta Antonio García y Bellidok bere ikerlanean esaten zuen, bere ustez, *bardyétai* hori, *vardulli* zela. Barduloak oraingo Gipuzkoaren parterik gehiena osatzen zuten, Donostiatik Itziarrera artekoa noski. Zeren *Oiáson* aipatzen duenean, hauek *ouáskonez* zeritzaien eskualdekoak zirela zioen. Beraz, *vascones*, nafarrak izaki. Ikus berri horiek A. García y Bellido-ren *España y los españoles hace dos mil años* (Buenos Aires, 1945) derritzan liburuaren 136-137 eta 162-163. orrialdeetan.

A. García y Bellido berak ikeritu zituen Pomponius Mela eta Caius Plinius Secundus erromarren lanak, ikus *La España del siglo primero de nuestra era, según P. Mela y C. Plinio* (Madrid, 1947).

Melari dagokion partean *vardulli* aipatzen da 37-38. orrialdeetan eta hemen bai ez duela zalantzarik jartzen *Vardulia* ez denik. Gero, Pliniori dagokion partean garbi asko dator *varduli* 133, 134 eta 140. orrialdeetan, gainera, 14 herrik osatzen zutela zioen, 133. orrialdean. Mendebaldetik mugako zituen *carietes* (*karistios*) eta *vennenses* (*verones* ote ?), hauek ordea 5 hiriz osatzen omen ziren, 133. orrialdean dakarrenez. Ekaldoko mugan *Oiarso* omen zen, 135. orrialdean aurkitzen denaren arabera.

Baina itzuli gaitezen berriz Erdi Arora. Arestian aipatu dudan 1007. urteko agiria hura, gure zorrionerako, bere osotasunean argitaratu berria da Jose Goñi Gaztambide jaunari esker, nork bildurik agertu duen *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona*, Tomo I (829-1243), 1997an. Liburu eder honen 26-29. orrialdeetan datorren agirian non aurki ditzakegu, *Ypuçcoa* probintziaren izenaz gainera, bertako zenbait herri eta partzuergo; hauen artean: *Oiarzun* (Nafarroako zena), *Berastegi*, *Larraun*, *Ara-ria* (gero Areria bezala ezagutua) *Ozcue*, *Ernani*, *Seiaz* (geroago Saiaz bezala oso ezaguna), *Titiar* (Itziar), *Yraugui* (Iraurgi harana noski), *Goayz* (Goiaz), *Erretzil*, "...*vallibus et tota Ypuçcoa*". Aurrreraxeago, *Sanctum Adrianum*. *Et a Sancto Adriano usque ad flumen quod dicitur Bidassoa* (hau

ere Nafarroa partearen zen garai hartan) *et aliud flumen appellatur Deua, et de Deua usque Goroçiza* (azken hau Bizkaikoa).

Agiri horren aurretik dakar 1014. urteko beste bat, 24-26. orrialdeetan. Zenbait historiagilek aipatua, baina zehaztasun gehiegirik gabe. Baina denak zetozen bat Ernaniren eskualdeko zela Donostia. Horien artean, Ramón Inzagaray zenak *Historia Eclesiástica de San Sebastián* (1951) liburuaren 4-6. orrialdeetan aipaten jakingarria estaini zigun.

Baina hara hemen agiria, egungo Donostiari dagokion partean, bere osotasunez. Non aipatzen dituen: "...*Ernani ad litus maris monasterium unum quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua et illam uillam que antigui dicebant Içurum cum ecclesiis suis scilicet beate Marie et sancti martiris Vicentii cum illo cubilare de Irurdia usque ad Anayçoç usque Albiçungo, cum illo cubilare de Albiçungo usque Ançieta, cum illo cubilare de Ançieta usque Çurçaiate, cum illo cubilare de Çurçaiate usque Bogoçu Larraburu, cum illo cubilare de Bagoçu Larraburu usque Lohiçta, cum illo cubilare de Lohizta usque illa freza de Çopite, de illa freza de Çopite...*"

Hor aski argi daude, besteak beste, Antiguako *Izurun* antzima-ko herri zaharra San Sebastian parrokiarekin. *Lohizta* deritzana, zalantzarik gabe, orain Ibaeta al-

dean den *Loiztaranekin* badu zer ikusirik; hartatik datorrela esango nuke. Aldiz, gehiegi uste izatea iruditzen zait orain Alde Zaharra den inguruan *Irurdia*, non kokatzen dituen Santa Maria eta San Bizente elizak. Baina horieta-

ko lekuizenik gehienak gaur egun ez ezezagunak ditugu.

Agiri horren arabera, zalantzarik gabe, Donostiako elizok erromaniko hasierakoak edo prerromanikoak izango ziren.

Juan San Martin